

DE SEMÁNTICA VASCA

por D. Resurrección M. de Azkue

Director de la Academia de la Lengua Vasca

Euskal semantika erakusteko arlo (sail) latzak nakar zuen artera. Itz polit meatz entzun au ¿zer dogu? Itzen barua, guna azaltzen dauskun yakitea, alemanen *Bedeutungslehre*, erderaz *Tratado de significaciones*: auxe da Semantika. Gure artean, eriak ezaren, batzuk aintzat artuta darabilen *izti* erderazko «tratado» bada, nik itz bari onezaz adierazoko neuke semantika: *zentzun-izti*. Eztot, oregaitino, neure lantxo onetan beste bein bere aitatu, neure mintzaldi onetan ulerteraza izan nai neuke-ta.

Edonok daki itzak zetarako direan: izakiak (gauzak) adierazoteko. Itzak gizonaren gogoan (ariman) bizi dira ta gogo oren antzera batean iraunkor dira, bestean aldakor eta sari gure arimea ezin izan daitekeana dira itzak: ilkor. Itzen aldakuntza irukoitz au erakutsi daroa semantika deritxon yakingai onek.

Bréal frantzes izkelari entzutetsuak *l'histoire*, dino, *l'histoire peut seule donner aux mots le degré de précision dont nous avons besoin pour les bien comprendre* (1). Historiak bakar-bakarrik emon daikioela itzai guk eurak ulertzeko bear dogun tinkotasuna. Euskalitzen semantika ikas-teko euren biziaren bari Historiak emon bear badausku, baregari bear dogu. Artuizue esku-artean udagoien legor-legor batek dakarskuzan ikoen artean ipoena, izangurakoena, txatxarena; estuizue. Dariozan tantak ainbatzeko (kontetako) astia nasai emongo dautsue; tantarik ostera sari battxo bere ez. Euskaldunontzat, batez bere euskalarikuntzan bizi gareanontzat, auxe dogu Historia: uri, legor, geienetan antzua, utsa.

Michel Breal-ek aitatu dodan gutun (liburu) bereari *Essai de Sémanthique* ezari eutsan izentzat: *essai ensayo*. ¿Nik neure lantxo oni Gernika-inguruko izen txanbelin asikina emon ete daiket? Baina asikin orek, zuku-ontzian maira dakarienean, sari bere azpian lukainka-zati gori oilo-biriki samur gozoak izan oi ditu; eta nik ezin izen ori neuretu dot. ¿Neure eriko arantzaleen *azaiada* artu etedaiket? Arek, azaiada bat egiteko, datorena datorela, euren sare ta tertzak itxasora yaurtigi daroetz eta askot an uts-utsik eskuratzen ditue. Nik (dakustana ezin ukatu daiket eta) itxas-bedar auka-zatiak baino ezpadira bere, zerbait beintzat, amasei bat ori bada-kustaz eskuartean. Lantxo oni zuzenen dagokion izena zuen arteko batzuen ezpanetan pil-pil erakori nairik aldabik asimasiak (erderazko rudimentos).

Diñoenez, salerosleak (merkatariak) euren liburuetan yoanak ezarten ditue aurretik: irazketak (gastuak); etoriak ondoren; zorak lenengo, artzekoak gero. Guk bere, euren antzera, gal-tzaiak aztertuko ditugu asteko, irabaziak urengo, eta bitzuen bitartean aldakuntzak. Onetantxe datza, esan dautsuedanez, semantika deritxon yakintza bari onen izatea.

Itz asko galdu edoditu gure izkera onek. Izkeren aberastasuna bitarikoa da elezkoa (dik-zionarioarena) ta eliztizkoa (gramatikaz dabena). Euskal gramatika edozeinen aurean buru-

(1) *Essai de Sémanthique*, p. 124.

lerden agertu daiteke. Aberatsena ezpada, geienak baino ugari, sustraitu, erozabal ta mamin-andikoago dogu beintzat. Iztegiari begiratuezkero gizonak: emakume senargura batek **âl** baino gino ta neuri andiangoaz bere burua yantzi, apaindu ta arkolatea ezta ariagara; baina, gure euskera maite au atsotxo zar-zar-zara dogu, kronologia baino bere askozaz urtetsuago da. Beste izkeraren batez ezkontzeko gogorik onezkero ezin erakutsi daike. ¿Zetarako agertuko dau beronen burua dan bairio eukitsuagotzat, aberatsagotzat? Iztegiari begiratuezkero, berein izkera dazauguz gurea baino oparoago orniduak, batez bere asmo bariko izaki-izenetan. Gramatika ugariari iztegi ugari, zabal ta sakona dagokio. Ezbaitzaka (enura baga) gure iztegia noizbait, gramatika dogunez, aberatsa zan. Gugana, oregaitino, ele asko galduta eldu da.

Gure liburu zaren bat, esaterako *Refranes y Sentencias*, zabalduta, guk eztarabilguzan itz nai baño geiago irakurten ditugu: *geide* prójimo, *urgazi* ayudar, *gebendu* prohibir eta beste asko. ¿Nondikoak ditu ta izan ditu euskereak galtzai onek?

Lenengo. Izaki asko itsutu egin dira, aienatu; eztira bizi, Izaki orek, il direanean, lurpera eroan ditue euron izenak. Oraintsu ilak izanezkero, ezagutu dituen buruetan bakar-bakarrik bizi dira eta batzuk-batzuk ezariak izan direan liburuetan. Orain eun urteko euskaldunak eribide ta basabidêtan gau ilunean ibilteko *zuziak* (erderazko tea, *flambeau*) bear izat en zitu'en. Argi barlak agertuaz arek batzuntzat betiko itzungi (amatau) zirean. Sutautsa (pólvara, *poudre*) sortu-orduko gizemak geziz ta azkonaz gudukatzen eben. ¿Gure artean bakar bat etedago *gezi* ta *azkona* amaren aotik entzun dabenik? Liburuai esker bizi-mizi dakuz. *A baila* bizi bada, mutil-kotxutan gizonkeriak egiteko erabili gendualako da. Bide zabalak egin zireanetik galdu da bide luzeak oinez egitea ta bidez ibiltzeko yanari-edariak zorotxo baten sartu ta sorbaldan dingilizka eroatea. Oitura onek lurpera itz eder bat eroan dausku: *bidaria*. Bere orde zerdaldunak euen *viático* arezkero Elizan sartuta bizi da, gurendurik (santuturik), yaungoikoturik.

Inoiz, uste dodanez, *Semantika* onezaz gutun bat (liburu bat) egingo banau, orduan argitaratuko nituke baturik eta batzeko daukaguzan itz zar, gaur erabilten eztitugun asko ta asko. Orain lan au luzêgi izan eztaitean, mueta bakoitzeko itz-mordo triki bat aitatuko dot.

Bigaren. Izaki asko, aienatu ezaren, taiuz beintzat, tankeraz, aldatu egin dira ta taiu bari ori erbestekoa izan bada, lenengo itza galduaz erbesteko itz bat sortu ta sartu da gure artean. Lenagoko sukaldêtan keari bidea emoteko (gaur Naparoko etxe zar batzuetan, Eronkarin ta Saraitzun, ikusi dodana) sueteganeari goiburuak (Mundakan nire amaren egunetan beintzat *goiburua* erderazko *techo* zan) goiburuak erdi-erdian utsune bat izaten eban; utsune oren goitik txapitulatxo bat egiten eben eta etxeakoak bustiko etzirean eran keak utsune atatik artzen eban aizetokira bidea. Kebide zâr ak suburua eban izena. Erbestetik sartu zan gure artean suete orek zokondo baten egin ta an gora egatza (telatua) bairio gorago bide estu bat egitea. Kebide orek, lengo izen eder *suburua* galduta, erbesteko itz bari *tximinia* artu eban. Aulkitzat lenago zurezko tresna batzuk erdian zulo orakaridunak zirean. Oraindirio ediro leitekez nonbait orelango aulkiak. Gure gurasoak ume zireala ezagutu zirean gure baserietan erdiunea ziizkoa eben lenengo aulkiak. Eta orduan sartu zan gure itzen artean *silla* izen arotza.

Neure ardurapeko baseritartxo bati bein «*txotxo*, esan neutsan ¿*leioa* ta *bentanea* bat ete-*dituk?*—*Leioa leio* da ta *mentanea mentana* erantzun eustan. Kristalik ezagutzen etzanean, otzaren bildurez leioak medar-medarak izan oi zirean: goitik bêra luze, ezker-eskuma ara-erdi edo lau bat atz inguruak. Ordu oretan berin orekaz, kristalokaz, sartu yakun Bizkaitik kendu ezin dogun itz arotz ori. Nunnai *balkoia* esaten dogu. Itz arotz oren orde z Txorieritar zar batzuri entzun neutsen *pendiza* esaten zala lenago. Ameneko (noski) *pendiz* arek beste taiu bat euen.

Bilbo-ondoko basauri batzuetan *lanka* esaten da *bankuaren* orde z. ¿Etedago iñor aretan, nire ardurapeko Amоротartxoak legez, *lankea lanka da* ta *mankua manku* esango leukeanik? Beste izaki askozaz yazo da suburua ta *aulki* ta *leio* ta riendiz ta *lanka* orezaz yazo dana: taiuz aldatu ta izena osorik edo beintzat erdiz erdi galdu. *Burdi* edo *gurdi* (Bayonaldean *orga*) ta *karoa*; *elikatu* ta *mantenitu*, *ziztora* ta *txorizoa*... ta beste eun orelangoxe izakiak dira.

Itz arotzak izkera baten sartzen asitakoan lengo zarai euren zentzuna makurago ta zakarago egiten dake. Alemanen *Wirtschaft* eta *Gasthaus* ta gure *ostatua* edozeinentzakoak zirean beinola. Aren ta gure artean *Hotel* sartu zanean, lengo izenak nekezaleentzako bizitokitxoak adierazoten ditue; aberatsentzakoak ostera *hotelak* dira. Mauruak gure artean euren *alkandor* saltzen asi zireanean, gizonen atorak *alkandora* edo *alkondara* artu eben izentzat.

Irugaren. Izaki batzuk itz bi edo geiago ditue ta aldi baten bi sendo bizi izan-aren, alkar yoten asten dira ta bietatik bata edo il edo urundu egiten da. Len aitatu ditudan *geide* ta *urgazi* ta *gebendu* onelangoxe bikoiztuak zirean: *geide* ta *lagun urkoa* (au latinezko *proximus* el más cercano-ren antzekoa) batera et ozan; *urgazi* ta *lagundu* bardinak zirean; bardinak *gebendu* ta *debekatu* (¿latinezko *vetare* tik ete, dator su?). Itzak, gizonak baino monarkikoago dira ta *urkoa* ta *lagundu* ta *gebendu* nagosi izatera eldu-orduan, euren naikideak *geide*, *urgazi* ta, *gebendu* ilik gelditu zirean. Latinoen *mos* eta frantzesen *moeur* adierazoteko erderazko *costumbre* labura da, euskaldun askoren *oitura* edo *oikuntza* ezta guztiz egokia. Bizkaiko euskalkiak bi itz egoki ditu oretarako: *ekandu* ta *izkune*. Alkar yoten asi zireanean, bat ez bestea etzirean il, baina alkaregandik urunduta bizi dira: *ekandu*, *tokirik* geienetan; Bermeo ta Izpaster-aldean, *izkunea*.

Onelantxe banatuta urundurik bizi dira Bizkaian bertan *iñardu* edo *jardun* Markiñan, Lekeitio, Gernikan ta beste eri ta basauri askotan; eragon Aratian, *erautsi* Leniz-aldean eta, eurok baino gogortxoago dalako edo, nunnai bizi da *ekin*. Bardinak dira *zetan diardut*, *zetan deraustsat*, *zetari daragiot* eta *zeri nakio*. Beste euskalkietan *ari izan* esaten dabe lau aditz eder onen orde. Len aitatu dodan *zuzi* Bizkaieraz itzungi itzali edo amataua izan-orduko, beste euskalki batzuetan zentzukide batek il eban. *Lastargi* da *zuzi-ren* zentzukide (sinonimo) Bayonaldeko au, *zuzu* beste nonbait.

Yazo daiteke, gizonak, gaur zentzukidetzat (sinonimotzat) daukaguzan itz asko bardinak ez izatea. Gipuzkerazko *galde* ta Bizkaierazko *itaune* erderazko «pregunta» bezelan darabilguz; baina Bizkaian bertan Izpazter-aldeko esakera onetan *zeure galde gatoz*, *bare-galde gabiltz*, eta Amorotoko *ostatu-galde gabiltzaz*, *galde* erdaldunen pesquisa (*recherche*) da. *Igori* ta *bidali* edo *bialdu* zentzukidetzat gaur erabiliaren, *igori* enviar objetos da, *bidali* despachar personas, darles lo necesario para el camino. Gure egunetan askok eta askok aoz nai lumaz zentzukidetzat darabilez *danak* (edo *denak*) eta *guztia*k. Genesisko itz aundi yaungoikozko *Qui est missit me ad vos* biurtzeko ezin egokiago da lenengoa, beintzat azentoa aldatuta. *Danak* (el que es) *zuekana bidali nau*. Baina erderazko *todos-en* orde *danak* edo *denak*, *danok* edo *denok* ezta bide aintzat artzea. *Da= es*, *n = que*, *danak =los que es*. Oren betegari gure zârak esakera eder zuzenak eukezan, oraindirio il eztirean esakerak: todos estamos aquí *gareanok emen gara*, todos se rueron *zireanak voan zirean*, todos han caído *direanak jausi dira*.

Atsedeen-puska bat artu daizuen, neure yaioturiko yazoera bat edatsiko dautsuet, gure arlo oni berera dagokiona ta atzo gure lagun Gavel izkelari argiak esan euskun zerbait en lagungari izan daitekeana: *R* vocal-artean itsutuz urengo *a* sari eztala esaten. Lekeitio-inguruko elizgizon izen oneko batek ango eliza ederean itz egiten eban bakoitzean zortzi-amar bidar, nondik edo andik ekarita, erderazko «absolutamente todos» aotan artu bear izaten eban. Ezeban inoiz esaten *dariak* edo *dan-danak*, *diin-diinak* baiño. Eta esamañatxo au aurez erabili oi ebalako, ezizentzat (izen gaiztotzat) *diin-diiñak* ezari eutsen.

Laugaren. Itz batzuk, ilda gero, euren eratori (derivados) batzuetan luzatzen dabe zelanbait euren izatea. ¿Nok esaten dau gaur *autz*, latinoen *faux*, erdaldunen *las fauces*? Bakarik, nik dakidala, eztarabilgu, Bidasoatik onantz beintzat. Gizonak: zuen izen onari eneuskio nik akatzik kendu nai ta eztot esango guztiok aukalariak izan zareenik. Ni beintzat zortzi-amabi urtekoa nintzala, egunean bost bidar ibiltzen nintzan *auzkaka*. *Auzka* esatea asko etzala *ka* biritan ezpane z ta ukabilez jamaikatxo bidar erabilten genduan! Silvain Pouvreau-ren *ahutzetako* (bofetada, *gifle*) guk ez; baina... ta bide batez esan daidan emen beste nonbait (eztakit non) esan dodana. Gaurko *boxeo* oretan Carpentier baino maisuago gintzazan gu. Ak *gifle* eta *sour-*

flet baino eztaki emoten; *guk* bariz *okotzekoa*, *begikoa*, *betondokoa*, *musturetakoa*, *aginetakoa*, *matrailakoa*, *belarondokoa*, *alderdikoa*, *zapladak ugari*, *ezpanetakoak*, *zurtziloetakoak* emon ezaren agindu beintzat oparo egiten genduzan.

Beste itz bat: *konkor* erderazko *jiba*, *bosse*. Erderatiko *jiboso* ta euskerazko *lepotxa*, *lepamakur*ta beste batzuk il dabe; baina erderazko «*quedé estupefacto* adierazoteko *konkortuta gelditu nintzan* entzungo dozue. Beate bat: au lengoa. Irakuri dodanez etzi txangotan asko Lekeitiara eizoaze. Edozein mutil ta neskatilari itandu an zer dan *zuzituta itxi dabe*: guztiak esango dautae *banatuta*, *zati-zati eginda* langoxea dala itz ori ta (len esan dodana) atso-aguraren batek baino eztaki *zuri* zer zan.

Zuzia egiteko adar bat artu eroen gure asabak eta bere ezotasuna legortu ta gogortasuna biguntzeko mailu batez yo ta yo, trimin-trimin egiteri eben.—Erderazko «echar» adierazoteko egotzi» geroago ta gitxiagotan entzuten dogu, Bizkaian ta Gipuzkoan beintzat: *bota* esan oi dogu geienok. *Egotzi* zer dan eztakien askok esan oi dabe bere seme eragotzi impedir, hacer echar. ¿Non entzuten eteda gaur egunean ikazi trepar, *grimper*? Lekeitioko arantzale batzuri igazko udan entzun neutsen itz il oren seme *irakatzi* izar velas; itzez itz «hacer trepar *faire grimper*. —Bidasoaren beste aldetik euskaldun guztion Gernika txanbelin onetara etori zakiguzan anai maiteok: bear bada aritu izango zarê euskaltzain baten aotik esakera au *gaur egunean* entzueran. Zuek *guk* baino askozaz egokiagorik *egungo egunean* esan oi dozue. Geuk bere antxina eta ez euskaldunak Basondoko arzuloan bizi zireanean, geuk bere erderazko *hoy* orentzat *egun* esaten genduan, *eguna* ogeta lau ordu ezeukazanean, egunak ordu batzuk eta gauak beste batzuk emoten euskuezan aldian. Len aitaturiko *Refranes y Sentencias* bizkaierazko liburutxo urezkoan *egun* ori, zuek bezelantxe, zentzun bikoitzez irakuri izango dozue. Il daku *egun* ori, bakarrik ibili ezinda baina bere eratori edo ondoko banaka baten bizirik daukagu. *Eguno*, *egundo* ta *egüño* erderazko «jamás» itzez itz «hasta hoy» dira.

Boskaren. Gure aurretiko izkelari entzutetsu Max Müller-ek gizonaren alpererian dakus Fonetikako lege batzuen ituria. Beste onenbeste esan daikegu. Semantikako lege onezaz bere. Gizonak alpereriak bultz eginda, erazenera yoten dau bere kabuz. Gure artean, batez bere Bizkai ta Gipuzkoan, *garbitu* itzaz nabari oi doguna oartzten da erdaleriko uri askotan euren *limpiar* aotan artzen dabenetan. Limpiar las manos *lavar-en* ordez esan oi dabe; limpiar la conciencia, *purificar* esateko; limpiar la habitación, *barrer* aitatu-bearean. Euskaleriko alde askotan, batez bere Bidasoatik aranzkoetan; *iku*zi esan oi da *eskuak* *iku*zi, *guk eskuak garbitu*; *barena txautu* puriricar la conciencia, *guk barua garbitu*; Zuberon ta Eronkarin erderazko *barrer-en* ordez *ekortu*, *guk garbitu*. Ostera Bidasoaren beste aldean buruaren lan batzuetan, erazenera yota, itz bat edo beste galdu ditue ta emen itz orek baditugu. *Atender* adierazoteko, *aditu* esan oi da an, emen bezelantxe; *entender* edo *comprender* adierazoteko, bere bardin, *aditu*; emen *ulertu*; *mostrar*, *hacer ver-en* ordez *erakutsi*; *enseñar*, *hacer aprender-en* egokitzen bardin: *erakutsi*; emen bariz bigaren buruera onentzat *irakatsi* daukagu. Eta Euskaleri guztian gizon baten griña ta lera bidezko ta goragariak azaltzeko itz bat daukagu, beste asko, gaiztoa bailitzan, erdi ilik daukazana. *Gizon ori* ONA da esan oi dogu. Guztiz meatz edo gitxitan entzuten ditugu esakera zar eder onek: *gizon ori* MENA da: dócil, *gizon ori* ESANGIÑA da: obediente: *gizon ori* ELIZKIOIA da; devoto; *gizon ori* KIRMENA da: riel; *gizon ori* ZINTZOA da: rino; *gizon ori* OTZANA da: modesto. *Gizon ori* ONA da esanez alpertzarok naikoa izaten dogu. Ostera griña txarak, lera okerak erakustea danean, Adan praka-zabal ta Eva gona-motzen belaun zârekoak gareala erakusteko, alpereriak itxi ta buru ta ezpan, ezpan ta buru, zein baino zein arduratsuago ditugula, laster entzun eragiten ditugu esakera onek: *gizon ori* ORDIA da, LAPURA da, bere *modukoa* da, *ortik-emetikoa* da, *zakara* da, *itxia* da, *aroa* da, *yatuna* da, *saskela* da, *kokoloa* da, *txotxolo bat* da guzti ori... eta onelantxe norberaren ao-gozagari ta iñoren belari-mingari direan beste eun itz. Euskerazkoak gitxi bailirean, erderara jota, Otzandiora bazoaze etxean-etxean entzungo dozue *bergante bat* da, Bermeon *alproja bat dxatzu ori* eta nonnai *tunante*, *basto*... ta abar.

Bat edo batek izan leike uste izatea Bidasoaren beste aldeko gure anaiak, euren erialde

ta eremuak onen menditsuak eztirealako edo, eztabela onelango ele goririk erabilten. Entzuzuez nik euren artean baturiko oiuki (kanta) baten itzak eta gero zuen ezbai ori zeuek emon epaia.

I

Joan behar eta ezin elkhi
erori eta ezin yaiki,
xakurak tau eta gatuak ñau,
ardoak hontara ekhari nau.
Gauak kantuz emaiten,
ni ardoak xoratzen:
etxean sartzean andrea ohean,
asare gorran, zapia lurean,
latina mihi-gainean ¡oh!
«txirtxila, hordia, galdua
¿nun ago gaur?
—¡Xo, xo! edana niagon, aur.

Beste ahapaldirik (estrofarik) ezeusten emon, eta (onelango aldietan oi izan dodanez) bigaren au neuk egin neban. Inguru aretako euskalari gure artean daukaguzanok esan daikee nire geigaritxo onetan angoa eztan ezer sartu dodan ala ez.

II

Goizean argi etxaldean,
txoriak txintaz (I) oihanean,
abere goseak, belarketan,
marumaz beitian eleketan;
emaztea lanean,
ni zurunkaz oihean:
gelan agertuta, ni lo ikusita,
leioa zabalduz, makila bat hartuz,
litaina beria hasten du:
«Alferia, nagia, gorotza
¿zer aiz egun?
—¡Xo, xo! biziki legale nun.

Neure mintzaldi onen bigaren ta irugaren atala, amaitzeko astia izan banau bere, ezin irakuri izango neuskezuez, geienok arausika luze deritxazuela ikusi bagarik. Irabazien arteko txatxarentxo bat erakutsiko dautsuet oregaitino: Erdera gitxien dakien artean erazen sartzen direan itz arotzak zeintzuk direan. Euskerazkoen antza daukenak dira itzok. Iztegiaren Itzaure luze atan aitatu neutsuenez, *ruiseñor* (rossignol) baseritaren artean *uretxindor* bihurturik sartu zan. Onelantxe lenengo *automobilak* Otzandion zear igaro zirean-egunetan izentzat ango mutilen artean *artomutil* artu eben Bayonaldean frantzesen *entonnoir*, erderazko «embudo», *Antonadar* izan zan aldi baten. Oraintsu il da 96 urteko aguratxo bat, bere aitari sari ta zee frantzeteko bariak antxina entzuna. *Don Melitón* esaten eban Wellington-en egitsariak aitatuorduan. *Hermenegildo* eritxon kankailo bati bere amak Bergara-ganeko basetxe baten *Perejilondo* dei egiten eieutsan. Udea igaroten dodan uritxoan, sari legez mutiko-arteana galdez sartuta bein, batari arainetan etêbilen, besteari okertu etezan esanda gero, Zululandia batek langoxe naru

(1) Txintaz Erontariko itza da: kantuz.

baltz eguzkitsudun begi-zorotz bati *txo ¿eskolan abil i?* itandu neutsan. *¿Zer ikasten dok?— Prantxesean nabil* erantzun eustan Izan-alean aritu nintzan ni, ene eriko maisu erdaldunak, euskeraz ez erderaz ezer aitatzekorik irakasten eztabela, prantzesa mutilen buruan sartzeaz.

Eta sinistu ezinik *ekarik etxetik liburu ori* esan neutsari mutilari, *txori txiki bat emongo*. Arapaladan txioa baino arinago eldu datan prantzes-ikaslea. Gogo minez artu neutsan liburua eskuetan. *Frases y cuentos* eukan izentzat azalean.

Bidasoatik onanzko eriak doan bati egin ta esaten dautse agur, datorenari ez; Bidasoatik aranzkoak bariz datorenari soil-soilik. Guk burua ta biotza Euskalari guztian daukaguzanezkerok, Bizkaian sortuaz Gernika ta Durangoko ibar zabaletan baizen eritar Eronkari ta Zuberoko mendi eskerga aretan gareanok, nai datorenari nai yoandakoai agur egin daikioegu. Agur bada zuei gure aurretiko euskalari Mikoleta, Astarloa, Zabala, Añibarro ta Mogel; Laramendi, Mendi-buru, Lardizabal; Axular, Humboldt, Bonaparte, Van Eys, Inchauspe, Duvoisin, Leizaraga ta Arana-Goiri. Agur zuei bere, gure artetik goizegi erialdatu zarên Broussain ta Agire, neure adiskide aztuezindako kutun bioi.—Eta, eriotzea bitarte dodala, geure azatzak bariro goldatu ta azi ereiten ta labore batzen zakustazan euskalari arlozale orei agur gozatsu bat. Gure asimasi onek zeuek burutuko dituzue; guk utsik eta otxik itziko ditugun aulkiak zeuek bete ta berotu; guk gure asabakandik baturiko kanta ta ipuin ta sineskeri ta beste gogo-arnariak zeuek zabalduko dituzue, nonnai izango dituzuen eskola txiki ta andietan. Arlo arduratsu bat darabilgu esku-artean. *Distrito universitario* geure geurea bear dogu eta ori dagokiozan eskolak geureak, maisuak geureak, eria geurea. Onelantxe asabakandiko ondasun bakar euskera geure au betikotu al izango dogu. Bestela gure alegiñok alperecoak izan leitekez. Gurari au, bear izan andi au eskuratu baga lurpera bagoaz, atzera begira yarita itandu eikezue «gizon orek ¿gizonak zirean? Prakaz ala gona zuriz yantzita sartu zituen zer aldoan, ilkutxan, lur emon eutsenean?»

Agur zuri bere, Estiriako ibar zoragari atatik gure lankide andi Schuchardtek (I) zakusazan eguzki eder, goizaldeko eguzki, keriza-lorak bezain zuri-gori agertuaz euskera ta Euskalari zar biryαιο onek berotu ta birbiztu nairik yagi zarean bizi-argi ta indar-su maite ori agur. Erdereak eta geure itxitasunak zure bidean zabaldu dituan laño baltz lodiok emaro-emaro zulatu, zurutu ta ezereztuaz, zoaz eder ori goiak gora eta urte batzuk baru Zenit-era eldu zaitezanean, zeure uratsak laburtuaz berankortu zaitez bertan eta etzakiguz iñoiz ilunabarera yatsi.

Gernikan, Agustinoen artean I3-IX-I922.

(1) Hugo Schuchart, 80 urte beteak dituen euskalari andia, aurtengo udaminean bere etxean Graz-en, ikusi neban. (Estiria-bareko uriburua da Graz). Gernikako Batzar onetara gorputzez agertzeko adore baga egoanezkerok, gogoz geuganatu zeitekeala esan neutsan itz batzuk, ementxe irakurteko, neuri emonaz. Ogei egun geroago bidalita arainegun artu neban bere ezku, garerdiko baten idazkera argiz, idatzitako eresi samur sakon au. Urengo orialdean agiri da.

Saludo del Prof. H. Schuchardt al Congreso

BEIN DA BETIKO

Gruss zum Fest von Gernika (Sept. 1922)

Iparagires Lied kloprt mit den Schwingen
des Zortziko an meines Herzens Pforte
und heischt fürs hohe rest Begrüssungsworte:
doch will Gernikas Baum mir nicht gelingen
als *Talisma* rdes Baskenvolks zu fassen,
nur als sein *Sinnbil* dscheint er mir zu passen.
Alt seid ihr, Basken, doch nicht greisenhaft,
nein, jugendfrisch heut zeigt sich cure Kraft,
die hoffnungsvoll erneute und erhöhte,
und sie begrüß ich wie die Morgenröte.

Graz, 2 Sept. 1922.

H. Schuchardt.

BEIN DA BETIKO

Gernikako yaialdiari agura. (Irail, 1922)

Iparagireren oiukiak (kantuak) zortziko neurian ots egiten dau nire biotzaren atean eta agurezko itzak yaialdi orentzat eskatzen daustaz. Gernikako Zugatza oregaitiño ezin dot Euskaleriaren *Talismantzat* artu, Simbolotzat baiño.

Zârak zaree zuek, euskaldunok; ez, bariz, zar makur indargatuak. Zuen gazte-indara gaur agiri da itxaropenez bariztatua ta goratua. Goiz gori edera bezelantxe agurkatzen zaituet.

Graz-en 1922 irailaren 2an.

Hugo Schuchardt.

(Itz onek, alemanez ta euskeras itzaldiaren aurretik irakuriak izan zirean.)